

**Gizartetik bazterturik geratzeko arriskuan dauden pertsonentzako  
etxebizitza babestuen arautegia**

**- PARTE HARTZEARI BURUZKO TXOSTENA -**

Urriaren 1eko 39/2015 Administrazio Publikoen Prozedura Erkidearen Legearen 133. artikulua behartzen du araudi proiektu bat prestatu aurretik kontsulta publikoa egitera.

Kontsulta publikoaren helburua da herritarrek eta kontu hauetan zeresana izan dezaketen erakundeek ondorengo puntu hauei buruz zein zer iritziz duten jakitea:

- a) Ekimenaren bitartez konpondu nahi diren arazoak.
- b) Arau hori onestea beharrezko eta egoki den.
- c) Arauaren helburuak.
- d) Izan litezkeen bestelako aukera erregulatzailerik eta ez-erregulatzailerik.

Aurrekoa kontuan hartuta, Ongizate Sailak Gizartetik bazterturik geratzeko arriskuan dauden pertsonentzako etxebizitza babestuen sarbidea, zerbitzuaren ezaugarriak, araubidea eta finantziatorako arautegia onartzeri buruzko arau-ekimenari dagokion alde aurreko kontsulta publikoa bideratu zuen.

2023ko abenduaren 20ko Alkate Dekretuz (1580 zk.) onartu zen aipatu arautegia kontsulta publikora ateratzea, udaleko barne prozedurari jarriki 20 egun balioduneko epean eta Oñatiko udaleko web atariaren bitartez.

Ekarpenak egiteko epea: 2024ko urtarrilaren 10a artekoa izan da.

Epa amaitu da ekarpenik jaso gabe.

Oñatin, 2024ko urtarrilaren 30an  
PARTAIDETZA ETA GARAPEN KOMUNITARIOKO TEKNIKARIA

